

## BATZAR AGIRIAK

1977 - XII - 30

Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1977ko Abenduaren 30ean, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buru-ordezko, J. L. Davant, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, L. Mitxelena, J. San Martin eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; P. Altuna, J. L. Alvarez Enparantza, J. M. Aranalde, M. Atxaga, J. Fdez. Setien, B. Gandiaga, J. Goikoetxea-Maiza, J. Intxausti, R. Kanblong, X. Kintana, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, X. Mendiguren, L. M. Mujika, I. Sarasola, P. Xarritton, A. Zatarain eta J. J. Zearreta euskaltzain laguntzaile jaunak.

Larzabal jaunak ezin etorria adiarazi du.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Azaroko batzar agiria onartu da.

### a) HARREMANAK:

Liburuzainak hartu diren liburuen berri eman du. Emaile diren jaun eta argitaratzaile hauei eskerrak ematea erabaki da: P. Lafitte, J. Hiriart-Urruty, J. L. Davant, A. Irigaray, J. M. Satrustegi, B. Gandiaga, Aita J. Riezu, E. Arrillaga, Liturjia batzordea, Bizkaiko Diputazioa eta Everest Editoriala.

Kontaduriaz arduratzen den J. J. Zearreta laguntzaileak hartu diren diru laguntzen berri eman du. Getariako Udalbatzarrak 5.000,— pezeta, Zaldibarko Udalbatzarrak 20.000,—, eta Goiti, S. C. I. Elgoibarko industriak 5.000,— pzta.

### b) GOIZEKO BILKURAREN BERRI:

Donostiako kale izenen zerrenda aztertu da.

Eusko Ikaskuntzaren gutuna, kideko bat izendatzeaz. Gerra aurrean arau zen bezala, euskaltzainburua eta idazkaria ordezkar bezala proposatzea erabaki da.

Euskal kultur elkarteen arterako sortzeko den Erakundearekin harremana izateko honako ordezkar hauek izendatzen dira: J. M. Satrustegi, J. San Martin, E. Knörr eta J. L. Lizundia. Erakunde hau zertan denari buruz J. M. Satrustegi, J. Intxausti eta bestek informatu dute.

Bergaran 1978ko Irailean, 4tik 9ra, egingo diren Biltzar nagusiak prestatzeaz, aldez aurretik langintzaren planifikazio eratzeko zenbait erabaki hartu dira. Biltzar hortara txostenak bidali nahi dituztenei dei egingo zaie, 1978ko ekainaren azkenerako beren adierazpenak eta txostenak Euskaltzaindiara bidaliak izan beharko direla. Baina, horien adierazpenen laburpenak ekainaren bukaerarako bidaliaz. Biltzar antolakizunak garaiz egin ahal izateko.

d) HIRIETAKO IZENEZ:

J. San Martinen txostena, hiribilduak sortzeaz kale izenak nola hasi ziren, hauek nola erabiliak izan diren eta gaurko eskariei erantzuteko nola behar luketen.

e) EUSKAL HIZKERA ETA EUSKAL NEURKERA

L. Mitxelenaren txostena, literatura zaharrean eta herri kantetan oinarriturik egin dituen ikerketaz euskal hizkeraz eta euskal neurkeraz zenbait ohar, hizkuntzaren joskerarekin zer ikusirik ere baduena.

f) 1978. URTERAKO BATZAR EGUTEGIA:

Idazkari ordeak irakurri du datorren urterako batzar egutegia: urtarilaren 29an, Iturriagaren omenezko batzarrea, Hernanin; martxoaren 31an, Endrike Knörr jaunaren sarrera batzarrea, Gasteizen; irailan, zortzigarren Euskaltzaindiaren Biltzarrak Bergaran, Eleizalderen omengan, eta bertan beharrezko izanik, Iraileko batzarrea ere; apirilekoa Hazparneko Euskal Astean, eta Zumaiaiko Bonifazio Etxegarairen mendeurrenean ere parte hartuko dugu. Gainerako batzarrak ohi bezala hilaren azken ostiraletan Donostian izango dira, azarokoan Intzagarai hasierako euskaltzaina gomutatuz.

g) SISTEMA PERIFRASTIKOAREN LAGUNTZAILE BATZUEN JATORRIAZ:

A. Irigoyenen txostena, latinezko "habeo" bezala erabiltzen zen *E(d)un* delakoaren sustrai bereko *du*, *duzu*, *du* eta *abar*, gaur egun bizirik dirauten flesioetan oinarriturik egin dituen azterketa oharrak adiarazi ditu.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

*Euskaltzainburua*  
LUIS VILLASANTE

*Idazkaria*  
Juan San Martin